


IRAKURLE DIGITALA

Firefox nabigatzailearen instalazio eta erabilera gida

Irakurle Digitala **Firefox**


nabigatzailearekin erabili ahal izateko hauek dira pausoak. Instalatuta baduzu, joan zaitez bederatzigarren pausora.

1. **Deskargatu** irakurle digitalaren web-orritik “irakurle_digitala.xpi” fitxategia.




2. Ireki **Firefox** nabigatzailea.


3. Pantailako goiko aldean eskuinean, **hedapena botoia** klikatu.




4. Gurrpiltxoan klikatu saguaren ezkerreko botoiarekin.




5. "Instalatu gehigarria fitxategitik" aukeratu.




6. Bilatu "irakurle_digitala.xpi" fitxategia, aukeratu eta "ireki" botoia klikatu.



7. Agertuko zaizun leihotxoan aukeratu **“Gehitu”**.



8. Ondoren agertuko zaizun leihotxoan eman **“Ados”**.




9. Azken pausoa tresna bera probatzea izango da.

Horretarako <https://argia.eus> bezalako web-orri baten sartuko gara gura kasuan.


Berri bat aukeratuko dugu eta Irakurle Digitala probatuko dugu.

Horretarako, Irakurle Digitalaren ikonoa duen botoia klikatuko dugu.



Adi! Web-orriak informazio asko badu, segundo batzuk itxaron beharko ditugu estentsioa ikusi ahal izateko.

Hortik aurrera, Irakurle Digitala **nondik irakurtzen hastea** nahi dugun aukeratuko dugu testua aukeratuz saguarekin eta **“play”** botoia sakatuko dugu Irakurle Digitala testu horretatik irakurtzen hasteko.



10. Bestetik, posible duzu Irakurle Digitalaren **ahotsa** edota **hizkuntza aldatzea**.

